

B750!

BERGARAKO 750.
URTEURRENEKO
ALDIZKARIA
2. zenbakia
2018ko abendua



4-5 'Bergarako Kolore Erraldoiak' ipuina

Gure historia erraldoien ahotan.

- 03** Herriaren garapenaren erakusketa.
- 06** Historic Site nazioarteko izendapena.
- 08** Wolfram Goxoa, bergarar izaera duen postre arrakastatsua.

Lanean jarraitzeko bultzada



Elena Lete / Bergarako alkatea

Bukatzeraz doa 2018, Bergarak Hiri-agiria jaso zueneko 750. urteurrena. Urte borobila izan da, zalantzarik gabe. Herritarren ideia izan zen efemeride hau gogora ekartzea eta herritarrok, eratutako mahai desberdinen bitartez, diseinatu eta aurrera atera dugu. Egitarau apal baina oparoa izan da eta bergararrok izan gara protagonista. Halaxe izan behar zuen: beste behin bergararrok erakutsi dugu aditu, artista, sortzaile garela eta, zer esanik ez, gure herria maite dugula.

Hausnartu dugu gure historiaz, gure lorpenetaz, izan garenaz eta izango garenaz. Are gehiago, kanpotik ere etorri dira egin dugunak, daukagunak eta egiten dugunak duen balioa gogoraraztera; horren baitan bultzada ederra izan da nazioarteko zientzialarien EPS elkarteak Bergarari Historic Site izendapena eman izana.

Bultzada ederra izan da nazioarteko zientzialarien EPS elkarteak Bergarari Historic Site izendapena eman izana.

Antolatutako ekintza guztiek harrera itzela izan dute. Parte-hartzea eta jakin-mina itzelak izan dira. Gainera, ekintza horiek guztiek balio izan dute gure sustraiez, lorpenez eta bergararron izaeraz jabetu eta harro egoteko; eta, jakina, lanean jarraitzeko. Izan garelako izango gara! Gora Bergara!

EMPUJE HACIA DELANTE

El 750 aniversario de la Carta Puebla ha sido un año redondo. La idea de recordar esta efemeride ha partido del pueblo, y es quien ha diseñado y organizado el programa. Actos modestos pero ricos en contenido donde los vecinos hemos sido los protagonistas. Así tenía que ser, una vez más hemos demostrado que en Bergara somos artistas, creadores y que conocemos y queremos nuestro pueblo.

Hemos reflexionado sobre nuestra historia, logros, lo que hemos sido y lo que somos, y tenemos razones para estar orgullosas y orgullosos, y seguir trabajando. Izan garelako izango gara! Gora Bergara!

750 ekintza

- Deialdi irekia eta mahaien eraketa.
- ErdiArokoAzoka Mariaren Lagundiaren eskutik.
- Bergarako historiaren sintesi liburua.
- Bergarako Mugarrien bira.
- Bergara Hiria Emakumeen Pilota Txapelketa.
- Bergara Hiria Emakumeen Hockey Txapelketa.
- Bergara Hiria Nesken krono igoera San Martzialera.
- Bergara Hiria Emakumeen Saskibalo Txapelketa.
- Bergara Hiria Emakumeen Futbol Txapelketa.
- Bergara Hiria Emakumeen Eskubalo Txapelketa.
- Bergara Kirola argazki erakusketa.
- Urteurrenoko pintxoak aukeratzeko lehiaketa, elkarte gastronomikoekin.
- Real Sociedad-Osasuna futbol partidua Ipintzan.
- 750. urteurrenoko ikuskizuna San Martin plazan.
- Wolfram Goxoaren ekoizpena eta salmenta.
- Bergara Historic Site izendapena.
- 750. urteurrena Gogoratzen erakusketa.
- 750. Urteurrena Gogoratzen hitzaldi sorta.
- 'Bergarako Kolore Erraldoiak' ipuina.
- Bergarako Musika Bandak Bergarako Martxen CDa.
- Indusketak Aritzeta San Miguelen.
- Bergarako curriculumaren lanketa.
- VerBergara.
- Bedelkarreko erakusleihoak 750. urteurrenaz moztortu.





750 urteotako garapena erakusgai

Bergarako 750. urteurrena borobiltzeko, Mahai Historiko-Zientifikoak gidatuta, erakusketa oso argigarria osatu du Udalak. Erakusketa ikusgai dago Laboratorium Museoa urtarrilaren 6ra arte. Udalerrriak 1268tik gaur egunera arte jasotako eraldaketa irudikatu da hainbat ataletan banatuta.

Bergararen lehen aipamena XI. mendekoa da, Nafarroako Erresumaren parte zen sasoiakoa. Hori bai, Bergara hiribildua 1268. urtean sortu zen modu ofizialean, duela 750 urte. Gaztelako errege zen Alfonsso X.a jakitunak sortu zuen, Gipuzkoako beste hainbat udalerrri bezalaxe. Alfonsso X.a ren asmoa zen Errege Bidean etapasegurua izatea.

Argi eta garbi hiribildua sortzeak aldaketak handiak ekarri zituen hainbat alorretan: lurraldetasuna, elkarbizitza, ekonomia, kultura... Orduan hasi zen batez ere Bergara funtzionatzen eta orduan hasi zen bergararren ibilbidea.

Horregatik, gure historia hobeto ezagutzeko gaur egunera arteko mugarri nagusiak batu dira erakusketa honetan, ibilbidea zein den jakiteko.

Hiru kalek osatzen zuten lehen hiribildu hura, Villanueva de Bergara: Goenkalea, Arte-kalea eta Barrenkalea. Gune hori harresi batek babesten omen zuen, eta hiri-multzoko arkitektura elementurik garrantzitsuenak San Pedro elizan zen, harresiarekin bat eginda, defentsa-sistema bilakatuta.

Hiribilduan bizitza abantaila handiak eman zizkien herritarrei: besteak beste, zergarik ordaindu behar ez izatea. Garai hartan Bergaran zeuden



Erakusketan gure historian mugarriak izan diren elementu ugari aurki daitezke udalarenak eta norbanakoak.



bileinuak—ozaetarrak eta gabi-riarrak—lehen aritu ziren udal gobernua kontrolatzeko.

Hiribildua merkataritza asmoekin sortuz, itsasorako bidean geralekua zelako. Hala, lehen biztanleek nagusiki merkataritza eta artisautza zuten bizibide; eta inguruetakoez nekazaritzan eta abeltzaintzan ziharduten. Gerora, altzairuaren negozioan sona lortu zuten Bergarako produktuek. Eta industriamodernoarengaraian ehungintza eta siderometalurgian puntakoa izan zen.

Kulturari dagokionez, Errege Mintegia oso nabarmena izan zen, Euskal Ilustrazioaren ikurra eta zientzialarien sorleku. Gainera, Elhuyar anaiek elementu kimiko berri bat isolatu zuten bertan 1783. urtean: wolframa.

Erakusketa gauzatu ahal izateko, funtsezkoak izan dira Mariaren Lagundiak, Miguel Altuna Lanbide Heziketak, Buruñako Kofradiak zein herritar askok egindako dohaintzak. Eskerrik asko guztiei!

750 AÑOS DE DESARROLLO

Para dar el mejor acabado al 750 aniversario de la villa, el Ayuntamiento, guiado por la Mesa Histórico-Científica, ha conformado una exposición muy didáctica para relatar el desarrollo de Bergara en los últimos 750 años.

La exposición puede visitarse hasta el 6 de enero en el Museo Laboratorium; y recoge elementos claves para entender la transformación vivida por nuestra localidad desde 1268 hasta nuestros días.

La exposición está dividida en varios apartados y los numerosos elementos —que relatan nuestra historia— allí expuestos forman parte tanto de los fondos del Ayuntamiento, así como de colecciones de Mariaren Lagundia, Miguel Altuna Lanbide Heziketa, Cofradía de Buruñao y vecinos anónimos. ¡Gracias a todos ellos!



ERRALDOIEN IPUINA

Bergarako Erraldoien Taldeak azken urteotan buruan zeukan gauzatu ezinezko ideia batetik abiatuta, Udalak erronka bere hartu eta, Erraldoi Taldearekin lankidetzan, umeei (batez ere) Bergarako historia kontatzen dien ipuina sortu eta argitaratu du. Liburua dagoeneko eskuragarri dago Udal Liburutegian, eta beraren bitartez Bergarako auzo, ohitura eta lanbideetatik barrena bidaiatzeko eta ikasteko aukera izango dugu.

Gure herriak asko dauka kontatzeko eta, modu errazean eta goxoan, ume zein nagusiendako aproposa den kontakizuna idatzi eta ilustratu egin dute hainbat profesionalak gure iraganaz eta, ondorioz, orainaz gehiago ikas dezagun.

Nondik sortua da Bergarako urdin mahoi kolorea? Nolakoa zen bizitza lehen gure herrian, kolorerik gabe? Zerk ematen dio kolorea gure udalerriri? Zeintzuk dira Felixin eta Guti? Non aritzen dira fin-fin Olentzero eta Mari Domingi? Zein pertsonai ezagun bizi izan dira gure herrian? Zer elementu kimiko isolatu zuten gure herrian?

Gure herriak asko dauka kontatzeko eta, modu errazean eta goxoan, ume zein nagusiendako aproposa den kontakizuna idatzi eta ilustratu egin dute Bergarako hainbat profesionalak gure iraganaz eta, ondorioz, orainaz gehiago ikas dezagun.



"Erraldoiekin umeez erraz ikasten dute gure historia"

Erraldioen Taldeak ahalegin handia egin du azken urteotan gure historia erraldioen bitartez irudikatzen, eta testigantza hori kalean hemen eta kanpoan uneoro transmititzeko. Erraldioen Taldea oso pozik dago ipuinaren emaitzarekin. Ibon Unamuno konpartsako kidearen hitzak jaso ditugu.

Gustura geratu zarete emaitzarekin? Bai. Originala da eta oso ondo dago. Herriugaritan izan gara erraldoiekin, baina orain arte ez dugu inoiz ikusi ipuin bat erraldoiekin kontatuta. Oso ideia ona da eta oso pozik gaude.

Zuen ideia batetik abiatu zen ipuin hau, ezta? Zerbait egiteko asmoa genuen, baina aurrekontuak garestiegiak ziren eta erdibidean umeez margotzeko ipuintxoak egin genituen. Udalak gure asmoaren berri izan zuen, eta guri proposamena eginez, martxan jarri zuen ipuina. Gure ideia eta 750. urteurrenaren funtsa batu dituzte; oso ondo dago.

Egia esan, zaila da Bergarako historia erraldoirik gabe ulertzea... Eskerrik asko! Taldea sortu genuenean Joxe Bixente eta Mari Kattalin bakarrik zeuden. Orduan erraldioen bitartez Bergarako historia irudikatu nahi izan dugu: Elhuyar anaiak, Jauntxo eleganteak, Baserriar eleganteak, Pasteleroak, Kotoi eta Mahoi... Erraldioen bitartez, umeez erraz identifikatzen dute gure historia.

Badirudi Erraldioen Taldea sasotsu dagoela. Hala da? Bai. 18 urte bete ditugu eta indartsu dago konpartsa. Gaur egun 24 nagusi eta 50 ume inguru gaude

taldean. Gainera, gero eta harrera hobea daukagu non-nahi: herrian, zer esanik ez, eta kanpoan ere gero eta ume eta nagusi gehiago batzen ditugu. Apustu handia izan zen hainbeste erraldoi egitea, baina ahaleginak merezi izan du. Jende askok jarraitzen du Erraldoi Taldea

Beti kalean lanean eta jaia indartzen ari zarete. Bergarako ekimen, potentzial eta kolore handia dauka? Bai, herri ekimentsu eta jaizalea da Bergara, eta Konpartsari dagokionez behintzat izugarritzko babesa ematen digu herriak kalera irteten garen bakoitzean.

Guti eta Felixinek ikusi dute ipuina? Zer diote? Ez. Oraindik ez dute ezer ikusi, baina ziur gaude oraingoan ere hunkitu egingo direla; ziur asko gustatuko zaiela. Ji ji.

18 urte bete ditugu eta indartsu dago Erraldoi Taldea. Gaur egun 24 nagusi eta 50 ume inguru gaude taldean.

LIBURUAREN FITXA

Izenburua: 'Bergarako Kolore Erraldoiak'.

Prezioa: 6 euro.

Non eskuratu: Udal Liburutegian eta Erraldoi Taldearen bitartez.

Argitaratzailea: Bergarako Udala.

Testuak: Uxue Agirre eta eta Elene Etxaniz.

Ilustrazioak: Make It Visual.



CUENTO, 'BERGARAKO KOLORE ERRALDOIAK'

La Comparsa de Gigantes de Bergara llevaba ya un tiempo queriendo publicar un documento escrito dirigido a los niños y niñas, pero no contaba con presupuesto para ello. El Ayuntamiento tuvo conocimiento de la idea y, tras proponérselo a la Comparsa, contrató a escritoras e ilustradoras de Bergara para poner en marcha la creación de un cuento en el cual los gigantes fueran los que narraran alguno de los capítulos de la historia de Bergara. Dicho y hecho.

Este cuento, 'Bergarako Kolore Erraldoiak' que tiene como protagonistas a los queridos Felixin y Guti, está ya en la calle, y se puede adquirir en la Biblioteca municipal al módico precio de 6 euros.



Historic Site izendapen ekitaldiaren bi une gogoangarri.



Historic Site izendatu dute Bergara nazioarteko zientzialariek

Urriaren 20an Laboratorium Museoak eta Bergarako Udalak Zientziaren Leku Historiko izendapena jaso zuten Europako Fisika Elkartearen -European Physical Society, EPS- eskutik. Arrazoia? Elhuyar anaiek Bergaran elementu kimiko berri bat isolatu izana, wolframa.

Historic Site izendapena

Laboratorium Museoan izendapena ziurtatzen duen plaka desestali zuten Bergarako alkate Elena Letek eta EPSko presidente Rudiger Vossek, Iñigo Urkullu lehendakariaren, Markel Olano ahaldun nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, EHUKo eta beste hainbat erakundetako ordezkarienez inguratuta. Are gehiago, EPSren bitartez Euskal Herrira etortzeko 80 zientzialari ere izan dituzte izendapen historikoa onen lekuko. Ez zen guxia-

gorako; Bergarak lortutako izendapena Espainiako Estatuan Bartzelonak eta Madrilek besterik ez dute. Gure herrian batutako lurraldeko agintari nagusiak eta erakunde askotariko ordezkari andanak izan ziren izendapenaren garrantziaren lekuko eta ispilu.

Museoaren kanpoaldean egindako plakaren desestaltzearen ostean, nazioarteko, Euskal Herriko eta Gipuzkoako erakundeetako ordezkariak zein Bergarako herritar ugari -tartean udalerriko alkate ohiek-Seminarixoa bete zuten. Han

ospatu zen Historic Site izendapen ekitaldia.

Ekitaldian hitza hartu zuten agintari, zientzialari eta ordezkari guztiek goraiatu zuten Elhuyar anaiek 1783an Bergaran, Errege Seminarioan bertan, egindako aurkikuntza: elementu kimiko berri baten isolatzea, wolframa, hain zuzen ere.

Jasotako hitzaldietan berbagai izan zuten Real Seminarioak izan zuten eragin ukaezina, eta ezagutzak lurraldearen garapena hauspotzeko duen garrantzia, besteak beste. Hurrenez hurren, Elena Lete Bergarako alkateak, EPSko presidente Rudiger Vossek, Markel Olano Gipuzkoako Foru Aldundiko ahaldun nagusiak, Donostia International Physics Center-eko presidente Pedro Miguel Etxenikek eta Iñigo Urkullu lehendakariak hartu

zuten hitza, Jakiundeko presidente Jesus Ugaldek gidatuta.

Etxenikek egindakoa izan zen hitzaldi anitzena, eta izan zuten zientifiko-dibulgatibotik, historikotik eta baita ere hungarritik.

Elena Lete alkateak nabarmendu zuen ezagutzak, hezkuntzak eta enpresek udalerrian elkar elikatzeko duten trebezia, eta horren emaitzak azpimarratu zituen. Txalotu zituen herritar, politikari eta boluntarioak urteetan egindako lanagatik; pertsonalki eskertu zituen EPS eta izendapen hau lortzeko ahalegin sutua egin duen Donostia International Physics Center eta Pedro Miguel Etxenike; eta jasotako izendapena opa nahi izan zien gure aurrekoei, 'Izan garelako izango gara!' lelopean.

Desde DIPC

El 20 de octubre del año 2018, Bergara se convirtió por un día en la capital de la física europea.

Y no era la primera vez. El 28 de septiembre de 1783, Bergara también fue el centro de la ciencia europea gracias a los hermanos Fausto y Juan José Elhuyar.

En 2018, la Sociedad Europea de Física (EPS, por sus siglas en inglés) otorgó al Laboratorium de Bergara la distinción de *'Sitio Histórico de la Física'* como reconocimiento al aislamiento del Wolframio realizado por los hermanos Elhuyar en 1783. La EPS es una de las organizaciones científicas más importantes de Europa. Agrupa las sociedades nacionales de física de 42 países distintos y acoge bajo este enorme paraguas a más de 130.000 investigadores. Su programa de *'Sitios Históricos'* distingue a aquellos lugares que considera fundamentales en la historia y desarrollo de la física. Bergara se une así a enclaves tan emblemáticos como el *Synchrocyclotron* del CERN, la casa de Albert Einstein en Berna o el Laboratorio Curie de París.

No es para menos. El wolframio ha demostrado ser un elemento fundamental en el avance de la ciencia moderna y un material decisivo en el desarrollo de muchas tecnologías. Se usa en aleaciones que deban resistir temperaturas elevadas, en el endurecimiento de aceros, en contactos electrónicos o en el aislamiento térmico de las pantallas de nuestros móviles. En la actual investigación de vanguardia aparece en procesos de catálisis, en los nuevos materiales



Ricardo Díez Muiño
Director del Donostia International Physics Center DIPC

avanzados bidimensionales o en el estudio de procesos de fotoemisión en la escala del attosegundo. Y toda esta actividad tiene su origen en el pequeño y brillante núcleo de investigación científica desarrollado en Bergara hace más de 200 años.

En justo homenaje a esta hazaña, el acto de conmemoración celebrado en Bergara el 20 de octubre fue multitudinario y emotivo. El presidente actual de la EPS Rüdiger Voss y el anterior presidente Christophe Rossel fueron recibidos por la alcaldesa de Bergara Elena Lete y descubrieron la placa que reconoce la distinción recibida por la villa. Representantes políticos, incluidos el lehendakari Iñigo Urkullu y el diputado general de Gipuzkoa Markel Olano, del mundo cultural, científico y académico, incluida la rectora de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, asistieron también al acto, junto con los receptores últimos del reconocimiento: las ciudadanas y ciudadanos de Bergara, herederos de la tradición de los hermanos Elhuyar. Estuvieron también presentes el investigador Ikerbasque Jaume Navarro y el presidente de Jakiunde Jesús Ugalde, dos de los principales responsables de que el reconocimiento de la EPS llegara a Bergara.


El wolframio es uno entre la centena de elementos que forman la tabla periódica, uno de los pocos ladrillos diferentes con que se construye la materia visible, en nuestro planeta o en los confines del Universo. En palabras de Pedro

Miguel Etxenike, presidente del Donostia International Physics Center (DIPC), la institución promotora de la distinción a Bergara, "es emocionante ser consciente de que tanto el wolframio como nosotros somos polvo de estrellas y seremos material del que nacerán nuevas estrellas".

Las ideas impulsadas por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País que permitieron que Bergara se convirtiera en 1783 no solo en la capital de la física europea sino también en un vibrante núcleo del pensamiento ilustrado siguen vigentes hoy en día: una apuesta estable y continuada por la educación y la investigación como motores del progreso social, cultural y económico. Igualmente importante es tomar conciencia como sociedad del papel crucial que juega la ciencia en nuestro bienestar individual y colectivo. Como decía Albert Einstein, "toda nuestra ciencia, comparada con la realidad, es primitiva e infantil; y, sin embargo, es lo más preciado que tenemos". Por eso, iniciativas como el museo Laboratorium del Ayuntamiento de Bergara, que orgullosa y merecidamente muestra ahora la placa de *Sitio Histórico de la Física* y que no solo mantiene la herencia de los hermanos Elhuyar, sino que proyecta en su entorno la relevancia de la ciencia, son símbolos de nuestro avance cultural y científico y herramientas para crear una sociedad más culta científicamente, en definitiva, una sociedad más libre.

WOLFRAM

Goxoa



ERREZETA:

Txokolatezko zilar koloreko kanpoaldea:
500g txokolate %70ekoa eta zilar koloreko elikagai-koloregaia. Txokolatea sukalde-errobotarekin apurtu eta mineral itxura hartzeko koloregaia gehitu.

Irin gabeko bizkotxo.

720g arrautza zuringo, 720g azukrea, 920g arrautza gorringoa eta 400g kakao-hautsa. Zuringoak harrotu eta azukrea gehitzen joan sendotzeko, gorringoak gehitu eta irabiatzen jarraitu. Hauts-kakaoarekin estali, xafla metalikoetan batu eta 180°tan egosi 8-10 min.

Konfitatutako gorringoak.

190g arrautza gorringo, 150g azukrea, 50g glukosa, 100g ur eta 10g limoi zukua. Azukrea, glukosa eta ura batu; 118° jarri eta gorringoaren gainera bota. Gehitu limoi zukua eta gastatu sutan krema lortu arte. Utzi hozten eta mahukatan batu.

Aurkezpena.

Kakao bizkotxo xaflak konfitatutako gorringoarekin errellenoarekin bete. Erruloa gorringo gehiagorekin estali eta txokolate harrietan arrautzatu.

WOLFRAM gozoaren izenak Wolframioari egiten dio erreferentzia, Elhuyar anaien udalerrian isolatutako elementu kimikoari, Bergarari nazioarteko zientzialarien eskutik Historic Site izeneko izendapen garrantzitsua eman diona.

Errepikaezina den goxoak hiru ezaugarri batzen ditu: herriaren historia, elkartasuna eta gauzak ondo egiteko trebetasuna.

Non eskuratu:

Bolintxo okindegiak,
Larrañaga gozotegia eta
Ogiberri okindegiak.

Non dastatu:

Lasa jatetxea eta
Zumelaga jatetxea.



Agustin Larrañaga.
Larrañaga gozotegia

Zer iruditu zitzaizuen Bergarako historiarekin eta gozogile tradizioarekin lotutako goxo bat sortzearen ideia?

Sabino Azkarate zinegotziaren ideia izan zen, eta txalotzeko ideia da. Hasieran zalantzak izan genituen egiteko, baina gero batzea erabaki genuen eta oso pozik gaude. Bestelako gozoak egiten badakigu eta jendeak apreziatzen ditu, baina noiz-behinka gauza berriak egin behar dira, jendeak behar ditu berrikuntzak. Gu gaude saltzeko, eta jendeak esango du gustuko duen edo ez.

Basque Culinary Center-eko errezetari ekarpenen bat egin zenion, ezta? Bai.

BCCra jo genuen nola egin ikastera. Orduan jakin nuen Wolfram Goxoa natarrekin sortu zutela, eta proposatu nien nata beharrean gorringoa erabiltzea, iraungitze hobea duelako eta zapore kontraste hobea egiten duelako. Proposamena gustatu zitzaion eta errezeta moldatu zuten.

Erraza da egiteko? Tira! Ez da irina erabiltzen, kakaoa baizik. Hortaz, arina da eta manipulatzeko prozesu luzeegia behar du. Hasieran gehiago kostatzen zitzaigun, baina dagoeneko hartu diogu eskua. Dena dela, BCCren errezetaren arabera, gorringoa bakarrik erabili behar bada ere, nik txurigo apur bat ere batzen diot.

Zer nolako harrera izaten ari da? Lehen bi asteak erotzekoak izan ziren! Gure aurreikuspenak askogatik gainditu ziren eta une batean osagai batzuk presaka lortzeko larri ibili ginen. Azken asteotan ez da tamaina horretan saltzen, baina bai, jendeari gustatu zaio eta egunero saltzen da.



Belen eta Mari Carmen García
Bolintxo Okindegia

Wolfram goxoak Bergarako historia eta gozogintzalotzen ditueza?

Wolframioaren aurkikuntza Bergarako historiaren pasarte garrantzitsu bat da, Elhuyar anaiek eginikoa. Eta goxo hau keinu bat da, Bergarako historia herritarrengana gerturatzeko modu goxo bat.

Erraza da egiteko? Nahiko lan du! Zailena txokolate beltzarekin pastela batzea da. Hauts metalikoaz estalitako txokolate beltzeko harritxoekin pastela estali behar da banan-banan, kontu haundiarekin.

Nolako harrera izaten ari da? Ona, batez ere, hasieran, berria zelako. Orain egoera normalizatu da eta jendea kerosten jarraitzen du.

Zer esango zenioke probatu ez duenari?

Kanpotik deigarria eta desberdina da; kolore gris metalikoa du, Wolfram mineralaren antzekoa. Txokolatea du oinarrian baina ez da gozoegia, estalduran %75ko txokolate purua baitu. Bergarako errelle-noarekin ere badu antza osagaietan. Edozein modutan, onena etorri eta probatzea da!

“Txokolatea du oinarrian baina ez da gozoegia, estalduran %75ko txokolate purua baitu”

WOLFRAM GOXOA

Wolfram Goxoa nace de la idea del Ayuntamiento de Bergara por crear un postre que una los hitos de la historia de Bergara, con la importante tradición pastelera de la villa, y así dejar un poso dulce en nuestra historia cercana.

De esta manera, el Ayuntamiento tocó la puerta de Basque Culinary Center para que diseñara un postre acorde con dicho punto de partida. Especialistas de BCC idearon este postre, Wolfram Goxoa, cuyos ingredientes principales son: chocolate, bizcocho sin harina y yema de huevo.

Wolfram Goxoa se asemeja físicamente al wolframio, elemento químico que los hermanos Elhuyar aislaron en Bergara, y razón principal de que EPS, asociación internacional de científicos, haya otorgado a Bergara la importante distinción de Historic Site de la ciencia.

Una vez creado el postre, el Ayuntamiento lanzó la invitación a pasteleros, panaderos y hosteleros de la localidad para aprender a prepararlo y comercializarlo. Varios negocios se animaron, empezaron a prepararlo y la reacción fue inusitada: las primeras semanas se quedaron sin género, y vecinos y visitantes siguen demandándolo. De hecho, la existencia de este postre tan bergarés ha suscitado interés también fuera de nuestras fronteras.

Wolfram Goxoa se puede comprar en diferentes formatos en los siguientes negocios: Pastelería Larrañaga, panaderías Bolintxo y panaderías Ogiberri. Asimismo, también se puede degustar en los restaurantes Lasa y Zumelaga de Bergara. On egin!!



750 KONTZERTUA

“Emanaldi errepikaezina”

Emanaldi errepikaezin gisa iragarri zen eta hala izan zen. Bergararen 750. urteurreneko kontzertuak ez zuen parekorik izan. Are gehiago, hainbeste maite dugun San Martin Agirre plaza halako emanaldi bereziaren lekuko eta era berean protagonista izan zen. Bergarako Musika Bandak, Orkestra Sinfonikoak eta herriko hainbat eta hainbat musikaririk eta artistek beraien onena ematen zuten une berean, udaletxearen fatxadan gure historiaren mugarri garrantzitsuenak ikusi ahal izan genituen; hori guztia iraileko gau eder batean. Luxuzkoa!



> DVDa

Kontzertua ETBn eta laster DVDan

ETBk eta Udalak egindako akordioari esker, 750. urteurreneko kontzertua abenduaren 29ko gauean ikusi ahal izango da ETBko 'Oholtza' saioan.

Horrez gain, Udalak emanaldia- ren kopiak egin ditu DVDan, eta urtarrileko bigarren astean esku- ragarri egongo dira doan Udal Liburutegian. 2.000 ale kaleratuko dira, eta eskaera handiagoa balitz, kopia gehiago egingo lirateke.



Luxuzkoa da herrian hainbeste eta halako artistak izatea. Ia 400 lagun agertoki gainean kantuan, piezak interpretatzen zein dantzan. Eta ia mila ikus-entzule plaza jakin-minez eta gozamenegoraino betetzen.

Gure tradizioa eta historia gorai- patuz eta era berean, aberastu eta biziberrituz; gure historiako mugarriak ezkonduz; eta bergararren haurtzarotik gaur egunera arteko soinu banda eder hori gogora ekarriz. Eskerrik asko Valen Moñux, Alfredo Gonzalez de Chirlaque eta beste ehunka lagun! Handia da Bergara, eta handia egin duzue berriro!

CONCIERTO 750 ANIVERSARIO

Bergara demostró –una vez más– de una manera indiscutible ser un pueblo que ama su cultura y su historia, y que sabe hacerla aún más grande y rica. El espectáculo del 750 aniversario, representado en la mejor ubicación soñada tanto para director como para público, la plaza San Martín de Agirre, unió tradición, talento y un pueblo volcado para recordar, honrar, disfrutar

y mirar hacia adelante. Un gran espectáculo diseñado y dirigido por Valen Moñux, con la batuta de Alfredo González de Chirlaque, y ejecutado por cientos de bergarreses y bergarresas.

Durante este espectáculo pudimos disfrutar de las mejores voces, los mejores instrumentos y las mejores interpretaciones de ese gran caudal de artistas con los que cuenta nuestra villa, mientras pasaban por nuestras retinas muchos de los importantes hitos culturales y

vivenciales de nuestra bien nutrida historia. ¡Todo un placer para nuestros ojos y oídos! ¡Eskerrik asko a Valen Moñux, a Alfredo González de Chirlaque y a tantos y tantas participantes!

Se podrá disfrutar nuevamente de este espectáculo la noche del 29 de diciembre a través de ETB; y, además, el Ayuntamiento va a poner a disposición de todas aquellas personas interesadas el DVD del espectáculo a para la segunda semana de enero.



GURE ONDAREAZ IKASTEN

Mahai Historikoak gidatuta, Bergarako historiaren alor gehienak batzen dituen hitzaldi sorta antolatu izan da. Aditu asko eta onak izan dira, eta herritarren erantzuna oso ona izan da.

Gure historiaren oinarriak

750. urteurrenari hasiera eman zion Mahai Historikoak eta Eusko Ikaskuntzak Bergararen historiari buruz landutako liburuak. Han jarri ziren gure historiaren oinarriak guztiontzat eskuragarri. Horren ostean, Bergarako historiako alor bakoitza lantzeko aditu bana gonbidatu eta azarotik abendura bitartean zazpi hitzaldi izan dira, zein baino zein interesgarriago eta jendetsuago.

Pascual Román Polo-k wolframioaren isolamendua eta espionaje izan zuen berbagai; Jerardo Elortzak euskararen presentzia Bergarako historian; Juantxo Madariagak Bergarako gizartea industrializazio aurretik; Patxi Larrañagak udalerriko abizen eta leinuak; Jesus Angel Gil Massak Garai Modernoko ondare arkitektonikoa. Baserriei buruz luze jardun zuen Alberto Santanak; eta Miguel Lazpiurrek balioei buruz.

Urtarrilerako hitzordua

Urtarrilerako beste bi hitzordu aurreikusten dira: 9an Idoia Arrietak 'Zer ezkututzen du hiribilduak?' hitzaldia egingo du; eta 16an EHU eta Aranzadiko adituek dolmenen berreskuratzeak izango dituzte berbagai. Bi hitzaldiak Irizarren izango dira, 19:00etan.



NUESTRA HISTORIA

Una vez fijadas las bases de la historia de Bergara en el libro redactado por la Mesa Histórica y Eusko Ikaskuntza, se invitó a sendos expertos y expertas para departir sobre cada uno de los apartados destacados de la historia de la villa: wolframio y espionaje; presencia del euskera; sociedad antes de la industrialización; apellidos y linajes; patrimonio arquitectónico; caseríos; y valores. Las conferencias han tenido muy buena respuesta.

Y aún quedan dos citas de gran interés para el mes de enero, ambas en el palacio Irizar a las 19:00: Idoia Arrieta versará sobre **aquello que hay detrás de la fundación de la villa** el día 9; y expertos de UPV y Aranzadi sobre la recuperación de los dólmenes, el día 16.

Aritzetako San Miguel ermitako indusketak

losu Etxezarraga. Bergarako Hiri-gutunaren 750. urteurrena gogoratzeko aukera aproposa eman digu haren aurretik herria eta eskualdea nolakoak ziren jakiteko. Gaur egun, batez ere arkeologiari esker, badakigu Gipuzkoako herrien jatorria ez dagoela errege eta jaunek sinaturiko agiri haietan. Gero eta gehiago, gure lurraldeari buruzko lehen idatzien aurreko aztarnak topatzen ari gara herri eta auzoetako elizen inguruan. Horregatik, badakigu, Hiri-agiria lortzea haien garapenean mugari garrantzitsua izan zela, baina ez beren historiaren hasiera. Aritzetako ermita lehen aldiz 1050 urte inguruan aipatzen da idatziz eta historialariek Deba eta Antzuola ibaiak banatzen dituen mendi malkarraren gainean dagoenarekin erlazionatu dute, hura ere San Migel Goiaingeruari eskainita baitago. Hala ere, Gabiriako oinetxearen aurrean, errearen beste aldean, santu beraren izena zeraman beste eliza bat ere bazela badakigu orain. Beste daturik ezean, zalantzak zalantza, ikerketa burutu dugunok ontzat hartu ditugu gure aurrekoen susmoak.

Gure asmoa baselizaren orubean bere bilakaera historikoa argituko zigun arrastorik ba ote zegoen jakitea izan da. Horretarako barnealdean 4x5m inguruko koadro zabala ireki dugu, zoladura osatzen duten harlosak banan bana kendu ondoren. Bestetik, kanpo aldean ere zenbait miaketa egin ditugu, txikiak baina ugariak, zelaian ahalik eta eremu zabalena ikertzeko.

Indusketari esker hiru alderdi ezberdin argitu ahal izan ditugu.

Batetik, begi bistaz burualdearen eta nabearen artean ikusten diren ezberdintasunak berretsi ditugu, bi zatien artean ehun bat urteko aldea dagoela jakin dugularik. XV. mendearen bigarren erdialdean eraiki zen tontorraren gainean elizaren zati nagusia eta 1551tik aurrera abside berria, tenplua maldan zehar zabaldu zuena, egiten hasi ziren.

Hala ere, jakin ahal izan dugu aurretik beste eliza bat ere bazela. Bere hormarik ez dugu topatu, bai ordea bere inguruan egindako ehorzketa bat. Urtebete baino aurretik hildako haurtxo baten hezurak aurkitu ditugu, hobi baten barruan. Gorpuzkinak garai hartan ohikoa zen moduan, hau da, burua mendebaldera eta oinak ekialdera zituela ehortzi zituzten eta analisisiek esan digute 1450. urtearen bueltan hil zela. Baliteke aurreko eliza baten inguruan zabaltzen zen hilerriaren ertzean egindako hilotza izatea. Zoritxarrez, guk induskatutako eremuaren marjinan zegoen eta ezin izan dugu besterik topatu. Gainera, ematen du XV. mendearen bigarren erdian eliza berreraikitzeke lanen ondorioz aurreko aztarnak deuseztatu zituztela, luraren maila beheragotzeko, ziurrenez. Horregatik, posible da lehenagoko arrastorik ez gelditzea bere jatorrizko lekuan.

Bestalde, sorpresak ere izan ditugu. Ermitaren ekialde eta iparrera dagoen zelaian egindako miaketei esker jakin dugu zonalde batean Erdi Aroko aztarnak badirela baina baita aurreagokoak ere! Aurkikuntza pozgarria izan da, elizaren bai barnean (nahasturiko betelan batean), baita kanpoan ere Burdin Aroko, hau da, duela 2000-2500 urteko inguruko zeramikazko ontzien arrastoak aurkitzea. Honek Elgoibarko Moru, Arrasate-Aretxa-



Burdin Aroko zeramikazko ontzi ezberdinen bi zati.



Arkeologoak ermitaren barnean lanean.

baleta-Aramaioko Murugain eta Azkoitiko Munoandiko herrixka harresituen arteko lurraldean beste asentamendu bat behintzat bazela esan lezake. Oraingoz hau behin-behineko hipotesia besterik ez da, baina aurrera begira ikerketarekin jarraitzea komeni dela adierazten digu.

EXCAVACIONES MUY PRODUCTIVAS

Las excavaciones que se están realizando en San Miguel de Aritzeta están dando frutos muy importantes. Además de los restos propios de la Edad Media en contrados previamente y en esta nueva campaña, hay más sorpresas. El equipo dirigido por losu Etxezarraga ha encontrado también restos de cerámica que datan entre 2000 y 2500 años, lo que abre la hipótesis de haberse localizado allí algún asentamiento de dicha época. Por supuesto, se seguirá adelante con la investigación.

URTEA IRUDITAN





**Begararen
750. urteurreneko
kontzertua**

IRAILAK 28 • OSTIRALA
22:30
San Martin Agirre plaza.





**Izan garelako
izango gara.**

**750 urte eta
AURRERA!**

**Eskerrik asko
urteurreneko
ekintzak gauzatzea
posible egin duzuen
guztioi.**



Bergarako
Udala

